



EraLan ikerketa-proiektuaren topaketa

Antolatzailea: Soziolinguistika Klusterra

Noiz: Azaroaren 13a, 9:00etan.

Non: Zamudioko Parke Teknologikoan, 101 eraikinean (auditorioan).

Lan munduan nola eragin erabileran? Galdera honi erantzun nahi izan zaio azaroaren 13an Zamudioko Parke Teknologikoan antolatu den topaketan. Soziolinguistika Klusterrak koordinatutako EraLan ikerketa-proiektua horri erantzuteko metodologia garatu eta aplikatzen aritu da 2 urtetan zehar eta topaketa honen bidez eman nahi izan ditu ezagutzera bertan garatutako puntu garrantzitsuenak. Proiektua sakontasun gehiagorekin aztertu ahal izateko, argitalpen bana eman zaie topaketara etorritako 80 gonbidatuei.



Pilar Kaltzada, Innobasqueko komunikazio zuzendariak berrikuntza eta hizkuntzen kudeaketari buruzko hausnarketa egin du bere hitzaldian, eta EraLan-ek ikuspegi honetatik egiten duen ekarpena azaldu; EraLan-en metodologiak ematen duen ikuspegi orokorra da azpimarratu duena.

Gizartea oso azkar ari da mugitzen eta aldaketa hori gure planetara ere ekarri behar dela esan du. Hizkuntzek, gainera, zer esan handia dute egoera berri hauetan erakundeek garatu behar dituzten baloreetan: Aniztasuna eta kohesioa. Hain zuzen ere, etorkizunean gizarte edo lurralde berritzaile izan nahi duen erakundeak, inguruari lotutako baloreak indartuko dituela iragarri du. Testuinguru honetan, euskararen erabilera lehenetsiko duten lan-esparruak sustatzea izango da helburu erakunde berritzaileentzat.

Hitzaldi honen ondotik, EraLan ikerketa-proiektuaren mamia azaldu dutenek hartu dute hitza: Batetik, J. Inazio Markok, EraLan-en zuzendari izan denak (UPV-EHUko Hezkuntzarako Ikerkuntza eta Diagnosi-Metodoen Saila) eta bestetik, EraLan-en metodologia garatu eta praktikan jarri duten erakundeetako ordezkariak: Jon Ajuria eta Fermin Perez (Bizkaiko Foru Aldundia), Juanjo Ruiz (Emun Koop. E.), Joxean Amundarain (Gipuzkoako Foru Aldundia) eta Aitziber Madrazo (LAB Sindikatua).

J. Inazio Markok EraLan-en kokapena egin eta garatutako EPESA metodologia azaldu du (Euskara Planetarako Esku-hartze Analitikorako metodologia). Honekin batera, proiektuaren izaera esperimentalaz azpimarratu du eta 1.0 bertsioa den hau probatzera eta ekarpenak egitera animatu du jendea. Metodoa aplikazioa erakundeetako langileek egiten dutenez, hurrengo aldietarako parte hartzaileak beraiek egotea bere lekuan proposatu du.

Aurtengoan, erakundeetako langileak ez, baina erakundeetan interbentzioak gauzatzeko arduradun izan direnek hartu dute hitza. Guztiek baloratu dute positiboki egindako lana eta gauzatutako interbentzioaren berri eman dute, goiz bateko jardunaldiak eskaintzen duen denbora mugatuan. Azpimarratutakoen artean, lortutako emaitzak, jendearen inplikazioa eta esperimendazioa izan dira.





EraLan-en orain arteko jardunak mamia duela erakutsi du. Horregatik, aurrera begira jarri da Soziolinguistika Klusterra. Egindakoa abiapuntu hartuta, etorkizunerako egitasmoa prestatzen ari da eta horren berri eman dute Nekane Goikoetxeak, EraLan-eko 2. fasearen zuzendariak, eta Oihana Lujanbiok, EraLan-en koordinatzaileak, Soziolinguistika Klusterraren izenean. Zehazki, "lidergoa" aldagaian zentratuko da ondorengo bi urtetako lanketa.

Eguna borobiltzeko, Europara jo dugu. Durk Gorterrekin, Ikerbasqueko ikerlari frisiarrak, European zehar hizkuntza gutxituek duten egoera ekarri digu. Irakurketa orokor baten ondotik, galesaren eta frasieraren arteko konparaketa egin du. Laburtuz, lan munduan (sektore pribatuan, zehazki) ematen zaion lehentasunarekin lotu du galesaren egoera soziolinguistiko hobea eta frasieraren egoera txarragoa.

